

**HAURTZAINDEGI HAURTZAINDEGI BEKAK
JASOTZEKO DEIALDI IREKIA, 2018KO EKITALDIA**

Alkatetzaren 172/2019 zenbakidun dekretuaren bidez, euskara arloko diru-laguntzen deialdia onartzen da, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dabezan oinarri berezietan araututakoarekin bat etorritz, jarraian zehatzen dan moduan.

Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza Udalbatzak onartzeko erabakian ahalmena ematen jakon alkateari ordenantza garatze-ko Tokiko Gobernu Batzarrak ondoko erabaki hau hartu dau:

Lehenengoa

2019ko ekitaldian haurtzaindegiko beken deialdi publikoa onartzea, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berezietan xedatutakoaren arabera. Oinarriak 242. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2010eko abenduaren 20an.

Bigarrena

Diru-laguntzaren aurrekontu-muga hiru mila (3.000,00) eurokoa da, eta 2310 48002. aurrekontu partidaren kargura ordainduko da.

Diru laguntza honetan, familia edo elkarbizitza unitate bakoitzak, gehienez, ondoko zenbateko hau jaso ahal izango dau:

- 1) Barrikako Udalean erroldatuta egon eta Plentziako Haurreskolan bi urtekoen gelan 2018-2019 ikasturterako laguntzaile bat kontratatze-ko kostuaren %60.
- 2) Laguntzaren eskatzaileari sortutako gastuen %50 ordainduko dau gehienez Udalak, bi urte baino gutxiagoko umeak dabezan familien kasuetan. Gehienez 900 euro lortu ahal izango dira.

Familia unitate horiei laguntzak eman ostean, halarik ere banatu gabeko kredituren bat geratuko balira, diru-laguntzak emango dira.

- 3) Familia unitateei 2-3 urte bitarteko umeak direla eta sortutako gastuen %50.
- Baldin eta aurrekontuko izendapena nahikoa ez bada eskabide guztiei aurre egiteko, laguntzok hainbanatu egingo dira aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera. Lehenengo eta behin, 1) atalari begiratu-ko jako, eta gero 2) eta 3) atalei, familia edo elkarbizitza unitatearen errentarekin bat. Azkenean, talde bakoitzaren eskatzaileen artean zati berdinarik eginez banatuko da.

Hirugarrena. — Xedea

Udalak beka emango deusiez Barrikako Udalean erroldatuta egon eta 2017-2018 ikasturtean parte hartu daben umeen familiei:

1. Plentziako Haurreskolako bi urtekoen gelan 0-2 urtetan egon direnei.
2. Haurtzaindegiren batean 0 2 urte eman dutenei.
3. Herri-ikastetxe edo hitzarmendunetan 2 3 urte eman dabenei.

Haurtzaindegiak, edonola ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutakoa izan beharko dau, eta jarduera hori betetzeko beharrezkoak diren betekizun guztiak bete beharko ditu. Zentro baimendutzat hartzen dira Hezkuntza Sailaren 297/2002 eta 215/2004 Dekretuetan ezarritako araudian eta apirilaren 10eko Hezkuntza Sailaren aginduan ezarritako betekizunak eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzko 10/2002 Lege Organikoan ezarritakoak betetzen dituztenak, eta, beraz, abenduaren 17ko 215/2004 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako arauzko baimena dabenak.

Ondorio horretarako, ikasturte akademikotzat hartzen da egutegian ezarri dena, Eusko Jaurlaritzak ezartzen duen eskola-egutegia oinarri dela, eta gutxi gorabehera irailetik hurrengo urteko ekainera bitartean doana, bi hilabeteak barne direla.

Halaber, dagokion deialdiaren kargura ordainduko dira herri-ikastetxeetako bi urteko haurren ikasgelek sortzen dabezan gastuak.

**Laugarrena. — Onuradunak**

Diru-laguntza honen onuradunatzat hartuko dira bizileku iraunkorra Barrikako udalerrian daben familia edo bizikidetzak unitateak, betiere betekizun hauek betetzen badituzte:

1. Familia eskatzailearen errentak, non eta ez diren deialdi honetako bigarren artikuluko 1) atalekoak, inola ere ezin izango du gainditu 30.000 euroko muga.
2. Diru laguntzaren sorburua den umea, 0 2 urtekoa bada, parte hartzea 2018/2019 ikasturtean Plentziako Haurreskolako bi urtekoen gelan edo haurtzaindegiren batean; edo 2-3 urte bitartekoa izanda, parte hartzea herri-ikastetxe baten edo itunpeko ikastetxe baten bi urtekoen gelan.
3. Plentziako Haurreskolara, haurtzaindegira edo bi urtekoen gelara doan umea eta familia-unitate osoa Barrika udalerrian errolatuta egotea, behintzat, laguntzaren helburu den ikastaroa hasi baino sei hilabete lehenago, eta ikastaroa amaitu arte bertan errolatuta egotea; hala ere, salbuespenezko kasuetan, egoera horiek informazio-batzorde eskudunak aztertu eta ebatziko ditu.
4. Familia-unitateek egunean eduki beharko dituzte Barrikako Udalerri ordaindu beharreko zerga, tasa eta prezio publiko guztiak.

Familia-unitateatzat hartuko da ezkontza-araubidean edo izatezko bikoteen araubidean daudenak, indarrean dagoen arloko araudian ezarritakoaren arabera. Aurrez aipaturiko betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzeko, dagozkion agiriak aurkeztu beharko dira.

Bosgarrena. — Baloratzeko irizpideak

Bigarren artikuluko 2) eta 3) ataletako eskabideak familia eskatzailearen errenta mailaren arabera sailkatuko dira, talde hauei jarraituta:

- A taldea: Familiaren errenta 10.000 eurokoa edo txikiagoa.
- B taldea: Familiaren errenta 10.000 eurotik gorakoa baina 20.000 eurokoa edo txikiagoa.
- C taldea: Familiaren errenta 20.000 eurotik gorakoa baina 30.000 euro baino txikiagoa.

Seigarrena. — Diru laguntzak emateko modua

Diru-laguntzak emateko araubidea lehiaketa bidezkoa da, hainbanaketasistema hain zuzen ere.

Lehenengo eta behin, onuradun bakoitzari egotziko jake bere atalari eta taldeari dagokien bekaren gehienezko zenbatekoa, ondoren zehaztu bezala:

- 1) atala: Urteko zenbatekoa, gehienez 900 eurokoa.
- 2. atala:
 - A taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 900 eurokoa.
 - B taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 600 eurokoa.
 - C taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 300 eurokoa.
- 3. atala:
 - A taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 900 eurokoa.
 - B taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 600 eurokoa.
 - C taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 300 eurokoa.

Baldin eta eskabide kopuruak ezarri den aurrekontu muga agortzen badu, finkatutako hurrenkeraren arabera emongo dira banatu beharreko laguntzak: lehenengo, 1) atala, gero 2) atala eta, azkenean, 3) atala; azken bi ataletako bakoitzean, taldeen hurrenkerari jarraituko jake, eta talde bakoitzaren barruan zati berdineko banaketa egingo da.

Baldin eta diru laguntzak banatu ondoren aurrekontu partidako zenbatekoren bat soberan egon ezker, taldeka banatuko da, hainbanatuta, zati berdinetan, harik eta kreditu erabilgarria agortu arte.

Barrikako Udalerriko Informazio Batzordeak aztertuko ditu dirulaguntzaren eskaerak.

**Zazpigarrena. — Aurkeztu beharreko agiriak**

- A) Bigarren artikuluko 1) ataleko eskabideak.
Ikasleen Gurasoen Elkarteko buruaren idazkia, eta, horrekin batera, batetik, Haurreskolara joan diren umeen zerrenda, eta, bestetik, 2018-2019 ikasturterako laguntzailearen kontrataziotik dagokien kostuaren frogagiria.
- B) Bigarren artikuluko 2) eta 3) ataletako eskabideak.
— Sinatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia.
— Matrikula ordaindu izanaren edo, hala badagokio, egindako ordainketen ziurtagiriak.
— Zentro ofizial izatearen ziurtagiria, Eusko Jaurlaritzak 215/2004 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik haurtzaindegi zerbitzua emateko Eusko Jaurlaritzaren baimena duela dioena.
— Bizikidetzaren unitatea osatzen daben kide guztien azken errenta aitortzea, edo, hala badagokio, Foru Ogasunak emondako aurkako ziurtagiria.

Adierazitako agirietakoren bat Administrazio honek lehendik bere eskuetan badauka, diru-laguntza eskatu dauenak ez aurkezteko eskubidea izango dau, Herri Administrazioen Administrazio jardunbide Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3. artikuluko bigarren paragrafoan agindutakoarekin bat etorritik. Kasu horretan, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko da agiri horiek aurkeztu zireneko inguruabarrak berberak direla baieztatzeko, eta berariaz adierazi beharko da zein agiri diren horiek.

Zerrendaturiko agiriez eta datuez gain, Udalak, kasu jakin bakoitza kontuan hartuz, beste edozein agiri osagarri eskatu ahal izango deus eskatzaileari, aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko.

Zortzigarrena. — Aurkezteko lekua eta epea

Eskaerak aurkezteko epea egutegiko 20 egunekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Edozein modutan ere, eskaera ikasturte osoan eta ezartzen den epetik kanpo ere aurkeztu ahal izango da, inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Adingabeak gizarte-arriskuan egotea edo arretagabezia larria izatea.
b) Deialdiaren epea amaitu ondoren muturreko eskasia ekonomikoan gertatzea.

Erakunde eta/edo, hala badagokio, pertsona interesdunek Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte eskaerak, edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak —Administrazio jardunbide Erkideari buruzko Legeak— 16.4 artikuluan aipatzen dituen lekuetako edozeinetan.

Bederatzigarrena. — Ebazteko eta jakinarazteko epea

Diru-laguntzak emateko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera, eta onartutako eta ukatutako diru-laguntzak jakinaraziko dira, bai eta atzera egin delako, eskubideari uko egin jakolako edo aintzat hartu ez diren eskaeren gertatzezko ezintasunagatik emon ez direnak ere.

Hamargarrena. — Jakinarazteko bideak

Ebazpenaren berri emango jakie interesdunei, hala aurreikusten baita administrazio jardunbide erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan.

Hamaikagarrena

Deialdia argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean eta webgunean, eta baita jakinaraztea 2016., 2017., 2018., eta 2019 urteetan jaiotako umeak dabezan bizikidetzaren atalei eta familiei banan-bana.